

c. 1932

Lekeitio zeluloidean



Kostata baina heldu zaie pelikulei euren txanda. Ez dugu material askorik aurkitu; egia esan, ez gara gehiegi ahalegindu. Dena dela, ez dirudi gerra aurreko filmazio askorik agertuko denik, baina ez dago jakiterik. Badakigu Zubiaurre anaiek 1929-1930 aldean Lekeitiotik pasatu ziren batean zertxobait filmatu zutela Santa Katalina aldean edo. Oraingo honetan 1932koa uste genuen beste dokumental batetik ateratako zatitxo baten fotogramak dakarzkizuegu baina fotogramaz fotograma aztertu dugunean konturatu gara -berandu tamalez- ontzien matrikulei erreparatuz 1935 edo ostekoa dela filmazioa. Horregatik dagoen dagoenean utziko dugu, hori bai, 1932 horri **c.** gehituz. Lana egin nahi duenak badu hemen esploratzeko ohian birjina. Gerra ostean, berriz, pelikulak ugaritu egin ziren baina hori beste kontu bat da.

Audioen antzean *kurik.eus* webgunean esegi nahi genituzke baina kopirraita dela eta ez da posible izango. Ez etsi, uatsapetik dabilta buelta bueltaka, halakoren batean helduko zaizkizue.

